

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA, INTERIOR Y JUSTICIA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

RELACIONES CIUDADANAS E INSTITUCIONALES

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

POLÍTICAS SOCIALES

DERECHOS SOCIALES

FOMENTO

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL, ADMINISTRACIÓN LOCAL, Y MEDIO AMBIENTE

Leire Ochoa eta Izaskun Abril, Osasuneko eta Landa Garapeneko kabinete buruak

Ikus-entzunezko komunikazioan eta Geografia eta Historian lizentziatuak dira, hurrenez hurren

Jueves, 30 de julio de 2015

Leire Ochoa Zubeldía eta Izaskun Abril Olaetxea Fernando Domínguez Cunchillos Osasuneko kontseilariaren eta Isabel Elizalde Arretxea Landa Garapeneko, Toki Administrazio eta Ingurumeneko kontseilariaren kabinete buruak izendatu dituzte, hurrenez hurren.

Leire Ochoa Zubeldía Iruñan jaio zen 1980an. Ezkonduta dago eta bi seme ditu.

Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean (2002) eta masterreko ikasketak egin ditu Jasangarritasuna eta Erantzunkizun Sozial Korporatiboan (2013) eta Unibertsitate Zentroen Kudeaketaren Kalitatean (2010), biak Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalan (UNED). Era berean, Web 2.0 aplikazioetan adituaren titulua du (2011), bai eta Community Management-eko Goi Mailako Programa eta Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria (2008) ere.

2000 eta 2002. urteen artean, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari zela, praktikak egin zituen hainbat komunikabidetan, hala nola, Cope Navarra, Canal 4 Navarra eta Cana 6 Navarran. 2003tik 2007ra editore eta aurkezle lanak egin zituen Canal 4 Valladolid telebistako albistegietan, eta 2008an Canal 4 Navarran egin zituen lan hauek. 2009tik Komunikazioko koordinatzaile gisa lan egin du UNED-ek Tuteran duen zentroan.

2007an "Provincia de Valladolid" Kazetaritzako lehen Saria jaso



Leire Ochoa, Osasun Departamentuko kabinete burua.

zuen, telebistaren sailean, “Donejakue Bidea Madrilera. Ezagutzeke dagoen ibilbidea” erreportajearekin.

Izaskun Abril Olaetxea Beran jaio zen 1970ean. Ezkonduta dago eta bi alaba ditu.

Geografia eta Historian lizentziatu zen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, Geografiako espezialitatean (1993), eta graduondoko ikasketak egin zituen Paisaia eta Lurraldean unibertsitate berean (1995). Ondoren, bere prestakuntza osatu du landa garapenarekin, proiektuen zuzendaritzarekin eta taldeen kudeaketarekin lotutako ikastaroekin.

Eusko Ikaskuntzan hasi zuen bere ibilbide profesionala 1998. urtean eta bertan Nafarroako Ikastetxe Fundazioaren sorreran parte hartu zuen. Urte haren amaieran toki-garapeneko agente gisa hasi zen lanean Cederna Garalurren Baztan-Urdazubi eta Zugarramurdiko eskualdean eta karguan orain arte jarraitu du. Bere zereginen artean, azpimarratzekoak dira ekintzaile eta enpresei emandako laguntza, eskualdeko prozesu eta proiektuen dinamizazioa eta proiektu publikoen koordinazioa eskualdeko, Estatuko eta Europako programen barruan.



Izaskun Abril, Landa Garapeneko kabinete burua.